

## EUSKARALDIA

# Simulakroa Donostian eta Lautadan

Aurten ez da Euskaraldirik izango, baina Donostiako Intxaurrondo auzoan eta Arabako Lautadan egingo dute. 2020an, ariguneak sortuko dira Euskaraldian, alegia, kolektibo, establezimendu, lantegi eta erakunde publikoetan euskara ulertzen duten taldetxoek euskaraz jarduteko ariketa egin ahal izango dute. Ariketa berria izango denez antolatzaileek proba pilotuak egin nahi zituzten. Lautadak eta Intxaurrondok proba ez, baizik eta egiazko ariketa egingo dute.

**ONINTZA IRURETA AZKUNE**  
**LAUTADAKO EUSKARALDIA**



**A**rabako Lautadan urriaren 21etik 27ra egingo dute Euskaraldia, zazpi egunez. 2020rako simulakroa deitu diote beraiek. Belarriprest eta ahobiziak izango dira eta txapa jarriko dute, iaz bezala. Berrikuntza ariguneak dira (ikus koadroa). Ekainaz geroztik ari dira bisitak egiten kolektibo, establezimendu, lantegi eta erakunde publikoetara. Lautadan 660 identifikatu dituzte. Entitate horietako pertsonen euskara ezagutza jakinda kalkulatu dute 221 arigune presta ditza-ketela euskaraz aritzeko. Horietatik 86 gune barrura begira sor daitezke; adibidez, lantegi batek langileen arteko bilerak euskaraz egiteko taldea osa dezake. Beste 135 kanpora begirako guneak lirateke, adibidez, saltoki handi batek bezeroak euskaraz artatzeko saltzaile taldea presta dezake. Euskaraldiko batzordekoek proportzioak aspaldi kalkulatu zituzten: 660 entitate horietatik %25ak hartu ahal izango du parte arigune gisa, gainerakoek ezin

dute, ezin baitute talderik osatu partaide guztiek ez baitakite euskaraz eta ulertzea ezinbesteko baldintza da taldeak euskaraz funtzionatzeko. Beste zifra bat: 86 barne ariguneetan Lautadako 520 herri-tar daude. Euskaraldiko batzordekoak eskualdekoak dira, eta jendea ezagutzen dutenez, detektatu dituzten taldeetan ia zehatz-mehatz esateko gai dira zenbat pertsona diren euskaraz ulertzeko gai. Lautadan 13.000 pertsona bizi dira.

Beraz, urriko simulakrora begira 221 ate joko dituzte eta arigune izateko proposamena luzatuko diete. Ondoren, balizko ariguneek etxe barruan erabaki beharko dute Euskaraldian parte hartuko duten ala ez, eta baiezkoa bada,

etxe barruan antolatu beharko dute. Haien ardura da taldean belarriprestak eta ahobiziak osatzea eta urrian, taldean, ariketa egitea.

Asier Lafuente Lautadako Euskaraldiko koordinatzailea da eta badaki erraz-

netik hasi direla, alegia, euskaraz ulertzeko gai diren taldeak detektatu dituzte eta haiek gonbidatu dituzte Euskaraldian parte hartzera. Eskualdeko entitateen %75ak ez du parte hartuko eta portzentaje handi horrek kezkatzen du

Lafuente: "Halakoa da gure egoera soziolinguistikoa. Entitateen %25ak parte hartzea gutxi iruditzen zaigu, eta hala ere badakigu horiek guztiek egingo balute ederra litzatekeela.

**Euskaraldiaz gain beste zerbait egon behar da. Erakunde publikoek ulermen unibertsalaren abiadura azkartzeko neurri makroak hartu behar dituzte"**

**ASIER LAFUENTE**  
 Lautadako euskaraldiko koordinatzailea



Alabaina, guk zailtasunak aurreikusten ditugu bi, lau edo sei urte barru. Orain ilusio handia egiten digu ariketak, baina aurrera begira arrisku handia dugu kopuruak errepikatzeko. Euskararen ulermen unibertsalak ez badu gora egiten, probabilitate kontua da: taldeetan euskaraz ez dakitenak baldin badaude, ezin dira ariguneak sortu. Ulermen unibertsa ez bada areagotzen gu blokeatuta geratuko gara eta horrek desmotivazioa ekar dezakeela sumatzen dugu. Alegia, Euskaraldiaz gain beste zerbait egon behar da eta erakunde publikoak interpelatu behar ditugu. Ulermen unibertsalaren abiadura azkartzeko neurri makroak hartu behar dira eta ez utzi oraingo abiadura, hau da, hezkuntza sistemaren eskutan”.

Adi egongo dira, ea 221 balizko ariguneetatik zenbat sortzen diren eta nola-ko esperientzia izaten duten. Hurrengo urteetarako erroka ordea, Lafuentek dioen moduan, gainerako entitateen %75a euskarara hurbiltzea izango da.

### DONOSTIAKO INTXAURRONDO AUZOAN ERE BAI

Euskaraldiaren antolatzaileen proposamena jaso duenetakoa da Donostiako Bagera elkarte. Ariguneak abian jartzeko proba pilotua egiteko eskaini zieten, eta elkarteak proba baino ariketa osotasunean egitea erabaki du. Intxaurren auzoan azaroaren 22tik abenduaren 3ra

bitarte egingo dute, hamaika egunez. Bagera elkarteko teknikari batek hartuko du gidaritza eta auzoan euskararen erabilera hauspotu nahian dabilen Plazara Goaz euskaraz batzordeak egingo ditu antolaketa lanak. Ekimenaren leloa da *Baietz nitik harago hamaika Intxaurren*. Auzoko hainbat elkarte eta establezimenduri proposatu diete arigune izateko eta baiezkotzeko erantzun batzuk jasoak dituzte. Antolatzaileen ustez, elkarte gastronomiko batek, harategi batek, kirol klubak eta ikastetxeek hartuko dute parte. Batzuek barne ariguneak sortuko dituzte, beste batzuek kanpokoak, eta barne-kanpo arituko direnak ere badira. Harrera ona izan dute orain arte. Auzotarrek berriz, iazko erroka izango dute, ahobizi edo belarriprest aukeratu-ko dute eta euskarari bide ematen saiatu beharko dute. Antolatzaileek herritarrei ohar berezia egingo diete identifikatuta egongo diren ariguneetan euskaraz egin dezaten eta haien errokan lagundu diezaieten. Ez dute izena eman beharrik izango iaz bezala, eta txapa nahi duenak jantziko du. Ariketa ez da berria beraientzat; 2017an 600 lagunek hartu zuten parte euskaraz aritzeko errokan eta 2018an, Euskaraldian, 1.300 parte-hartzaile izan ziren. Bagera elkarte Donostiako Udalarekin elkarlanean arituko da. Udalak bi teknikariren bidez gizarte zerbitzugunea, bi kultur etxe eta bi kiroldegi arigune bilakatuko ditu. ●

## Zer dira ariguneak?

2020ko Euskaraldiko berrikuntza dira ariguneak. Ariguneak euskara ulertzen dutenak eta euskara dakitenak elkarrekin euskaraz arituko diren gune kolektiboak dira. Entitateek, hau da, edozein motako erakunde publiko, enpresa, denda edo herri elkarte halako guneak sortzeko erraztasunak jarriko dituzte eta gune horietako pertsonak ariketan parte hartzeko nahia adierazi beharko dute. Euskaraldiaren antolatzaileek ariguneak sortzen eta identifikatzen egingo dute lan. Ariguneak barrura begira edo kanpora begira sor daitezke. Adibidez, barrura begira, enpresa bateko bilerak euskaraz egin daitezke parte hartzaileek euskaraz ulertzeko gaitasuna dutelako eta enpresan zuzendari-tzaren eta langileen artean bilera horiek arigune bihurtzea erabaki dutelako. Kanpora begira, saltoki handi batek saltzailez osatutako arigune bat sor dezake erosleak euskaraz artatzeko.

bagera

Donostiako  
Euskaltzaleen Elkarte

Hernani kalea 15, behe. 20004 Donostia  
☎ 943 005 074 · bagera@bagera.eus  
www.bagera.eus